

HAURTZARO IKASTOLAKO MENDI TALDEA


Urtarrilak 19- ULIA

Eguna: Urtarrilak 19, igandea.

Irteera: 9:00etan liburutegitik abiatzen den autobusa.

Itzulera: 13:00etan Grosen autobusa hartuko dugu.

Ibilbidea: 7 Km. Oraingoan Pasaiatik Donostiarako bidea egingo dugu Ulia mendian barrena



Ibilbidea ez dugu Oiartzunen hasiko. 9:00tan liburutegiko autobus geltokian geratzen den autobusa hartuko dugu, bakoitzari hobekien datorkion geltokian, eta Pasaiako Eskalerillas geltokian jaitsiko gara bertatik San Pedrora joateko. Ibilbidea Gipuzkoari itzulia egiten dion GR121aren zati bat da, beraz marka zuri-horiek erakutsiko digute bidea.

Albaola itsas faktoriaren ondotik pasa eta Senekozuloako itsasargiaren ondotik gora doazen eskilarek eskatuko digute lehen ahalegina, baina altuera hartzen joan ahala bideak eskainiko digun ikuspegiak, isuritako izerdiak merezi izan duela sentituko dugu. Hemendik aurrera, bunkerrak, Donostiara ura zeraman garai bateko kanala, iturriak, latsarriak eta paraje ederrak ikusiko ditugu, eta Gros auzoan bukatuko da gure ibilbidea.

Izen ematea: [KLIK HEMEN](#)

Epea: urtarrilak 16, osteguna.

OHARRAK:

1. LH3tik gorako ikasleek izango dute irteeretara etortzeko aukera.
2. Eraman beharrekoak: arropa eta oinetako egokiak, zira, hamaiketako eta ura.
3. Eguraldiarengatik aldaketarik egin beharko balitz, Mendi Taldeak bere esku hartuko luke eginkizuna.
4. Azken orduko ezusteetarako telefonoak: Fernando 656751199 eta Lorena 679358740.
5. Mendi taldearen urteko irteeren informazioa eta irteeren argazkiak: www.haurtzaroikastola.eus

